



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Balmasedako Udala

Balmasedako Udalerrian Kooperaziorako eta Garapenerako proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak.

Jendaurrean erakusteko epean zehar ez zenez erreklamaziorik eta iradokizunik aurkeztu, automatikoki, behin betikotzat joko da Udalbatzaren 2024ko uztailaren 4ko erabakia, 2024ko uztailaren 12ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 135. zenbakian argitaratutakoa Balmasedako udalerriko lankidetzaren eta garapen proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak behin-behineko onetsi zuen. Hori guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 eta 65. artikulua betetze aldera, oinarri arautzaileen testu osoa txertatzen da jarraian, legezko ondorio guztietarako eta, bereziki, indarrean sar dadin. Honela geratu da:

Balmasedan, 2024ko abuztuaren 29an. — Alkatea, Alfonso San Vicente de la Horra



BALMASEDAKO UDALERRIAN KOOPERAZIORAKO ETA GARAPENERAKO PROIEKTUAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

Lehenengo oinarria. — *Dirulaguntzaren xedea*

Oinarri hauen xedea da laguntza ekonomikoen emakida arautzea Balmasedako udalerrian, garapen-bidean dauden, gatazkak edo iheslari-esparruak eta desplazatuak di-tuzten herrialdeetan sustatzeko ekintzak finantzatzen laguntzeko.

Bigarren oinarria. — *Ezarpen-eremua*

Dirulaguntza hauek laugarren oinarrian aipatutako irabazi asmorik gabeko gobernu-zanpoko erakundeei zuzenduta daude. Balmasedan sortutako eta hirugarren oinarrian aipatutako diruz lagun daitezkeen ildoak finantzatu ahal izango dira soilik, betiere oinarri arautzaileak zorrotz betetzen badituzte.

Hirugarren oinarria. — *Araudi juridikoa*

Dirulaguntza hauek esleitzerakoan eta harreman juridikoa ezartzerakoan (dirulaguntza ematen duen organoaren eta onuradunaren artean, oinarri hauetan ezarritakoa bete beharko da, bai eta, horietan aurreikusi gabekoetan, beste hauetan ezarritakoa: azaroaren 17ko 35/2003 Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorrean eta Balmasedako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean.

Laugarren oinarria. — *Diruz lagun daitezkeen ildoak*

Hauek dira diruz lagun daitezkeen ildoak:

- Balmasedan sortutako garapenerako eta kooperaziorako proiektuak.
- Garapenerako eta bidezko merkataritzarako sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak, Balmasedako biztanleen artean jarrera eta ekintza solidarioak sustatzen badituzte jardunaldi, erakusketa, ikastaro edo sentsibilizaziorako beste jarduerak batzuen bidez.
- Gizarte-larrialdiko laguntza humanitarioak.

Hemen adierazitako eta diruz lagun daitezkeen ildo guztiek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

- Garapen-bidean dauden herrialdeetan egitea.
- Beren helburuen artean garapen sozioekonomiko orekatua laguntzen dutenak edo arlo hauetan arreta jartzen dutenak: osasuna, hezkuntza, gizarte-arreta, kultura, giza eta gizarte-eskubideen sustapena, genero-parekidetasuna, balio demokratikoak eta askatasunak garatzea (banakakoak zein kolektiboak).
- Ekintzak egiten diren eta garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleak izatea onuradunak.
- Proiektuak, jarduerak eta ekintzak egingo diren herrialdeko kultura errespetatzea.
- Proiektuak egingo diren eta garapen-bidean dauden herrialdeetako ingurumena babestea, eta biztanleen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzea.

Bosgarren oinarria. — *Erakunde onuradunak*

Hauek hartuko dira erakunde onuradunak:

- Irabazi asmorik gabeko erakunde edo elkarteak, Balmasedan egoitza nagusia edo legez eraturako ordezkariak dutenak, eta Eusko Jaurlaritzan behar bezala erregistraturakoak. Horien estatutu edo funtzionamenduan ez da arrazoi politiko edo ideologiko, erlijio, sexu edo adinaren ondoriozko bazterketarik egingo, eta erakunde horien jarduerak baldin badatoz bat deialdiaren xedearekin.
- Baita hartuko dira erakunde onuradunak ere (kooperaziorako proiektuetarako baino ez) Balmasedan egoitza duten irabazi asmorik gabeko erakundeak, baldin eta horien jarduerak zuzenduta badaude hobetzera garapen-bidean dauden he-



rialdeetako biztanleen egoera sozioekonomikoa. Eta, beti ere, erakundeek dagokien erakundeetarako erregistro ofizialean izena emanda badute, eta estatutu edo funtzionamenduan ez badute bazterketarik aurreikusten arrazoi hauengatik: arrazoi politiko edo ideologiko, erlijio, sexu edo adina.

3. Kanpo geratuko dira Administrazio Publikoaren mendeko erakunde eta zerbitzuak, baita aurrezki entitateak ere.

Seigarren oinarria.— Erakunde onuradunen betebeharrak

Erakunde onuradunek ondoren adierazten diren baldintza guztiak bete beharko dituzte:

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako egoeraren batean ez egotea.
2. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan aurreikusitako egoera guztiak.
3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluko 3. eta 4. ataletan adierazitakoa aintzat hartuta, erakunde onuradunek dagokion publizitatea eman beharko diote lortutako dirulaguntzari.
 - a. Erakunde onuradunek proiektuaren aurkezpen publikoa egin beharko dute Balmasedan.
 - b. Horrez gain, erakunde onuradunak Balmasedako Udaleko ezkutu ofiziala gehitu beharko du idatzizko komunikazio guztietan, eta, ahozko komunikazioetan aipatzea garatutako proiektuak, jarduerak eta/edo ekimenak Balmasedako Udalaren dirulaguntza duela.
4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuko 23. artikuluan oinarrituta, ezingo dute sexuagatiko inolako bereizkeriarik gauzatu, ezta atal horretan aipatutako araudia-
ren 3.1 artikuluan aurreikusitako bereizkeria anizkoitzeko faktoreengatiko jarduerarik ere. Horrez gain, ezingo dute dirulaguntzarik eskatu dagokion zehapenean ezarritako aldiaren sexuagatiko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penalak jaso duten jarduerak.
 - a. Hori egiaztatzeko, erakunde eta pertsona fisiko onuradun guztiek oinarri hauetako I. eranskinean atxikitzen den erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko dute.
5. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuko 23.3b artikuluan adierazitakoa betetz, pertsona eskatzaileek konpromisoa hartzen dute aurkezten dituzten proiektu, jarduera eta ekimenetan genero-ikuspegia gehitzeko.
6. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
7. Beren xedeen artean hirugarren munduko kooperaziorako eta garapenerako jarduerak antolatzea egotea.
8. Diruz lagunduko den jarduera garapen-bidean daude herrialdeetan egitea eta/edo herrialde horiei buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea.
9. Egoitza Balmasedan edukitzea.
10. Erakunde onuradunak uneren batean kontu-korronteko zenbakia aldatzen badu, aldaketa hori egin izanaren banku edo aurrezki-erakundearen egiaztatzea jaso beharko du. Horrez gain, eskaeran zenbaki berria adierazi beharko du.
11. Egindako proiektuetarako, jardueretarako edo ekimenetarako diruz lagun daitezkeen gastuen fakturak tokiko administrazioari bidaltzea.
12. Laguntza hau eskatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia entregatzea, berderatziparren oinarrian adierazitakoarekin bat.

**Zazpigarren oinarria. — Tokiko administrazioaren eskakizunak**

Administrazioak ondoren adierazten diren eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen du:

1. Dirulaguntzaren emakidak onestea Alkatetzaren Dekretu bidez.
2. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 18.2 artikuluan oinarrituta, Balmasedako Udalak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari adierazi behar dizkio egindako emakidak.
3. Hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskararen erabilera sustatzea, honako arau hauetan oinarrituta: Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982ko oinarritzko Legearen 5. eta 6. artikulua; Administrazio Publiko Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. artikulua; eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.16 artikulua.
4. Hizkera eta irudi inklusiboak eta ez-sexistak erabiltzea zuzenean edo hirugarren pertsonak edo erakundeak sortzen dituzten dokumentu eta euskarrietan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 19.4 artikulua betez.
5. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan adierazitakoa.

Zortzigarren oinarria. — Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntza hauek norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 22. artikuluan oinarrituta.

Bederatzigarren oinarria. — Eskeraren izapidetzea

Eskera izapidetzeko hemen ezarritako urratsak jarraituko dira:

1. Balmasedako biztanleen hizkuntza eskubideak bermatzeko, eskaera eta proiektuak gaztelaniaz eta euskaraz aurkeztu ahal izango dira, arau hauetan oinarrituta: Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982ko oinarritzko Legearen 5. eta 6. artikulua; Administrazio Publiko Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. artikulua; eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.16 artikulua.
2. Eskera bitarteko elektronikoen bidez edo paperean egingo da.
3. Eskera bitarteko elektronikoen bidez egiteko, egiaztagiri digitala beharko da. Eskera bitarteko elektronikoen bidez egiteko, erakunde edo elkarte eskatzai-leak Balmasedako egoitza elektronikoa sartu beharko du, web-orri honetan:
— www.egoitza.balmaseda.eus

Paperean aurkeztuz gero, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren (HAZ) bidez egingo da, honako helbide honetan: El Cubo kalea 3, 48800, Balmaseda, Bizkaia. Horretarako, bederatzigarren oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, eskaeraren inprimakia bete beharko da: »hirugarren munduan kooperaziorako proiektuak aurkezteko deialdia subvención para proyectos de cooperación con el tercer mundo». Beste dirulaguntza jasotzekotan edo jaso izan balitz, erantzukizunpeko adierazpena bete beharko da.

**Hamargarren oinarria. — Eskaerarako behar den dokumentazioa**

Laguntzaren eskaera behar bezala egiteko, ondoren adierazten diren agiri guztiak entregatu beharko dira:

1. Proiektuaren justifikazio-txostena, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.3 artikuluan oinarrituta. Emandako zerbitzuaren azken onuradun edo erabiltzaileen eta erakundeko titularren eta langileen informazioa sexuaren arabera banakatuta adierazi beharko da, baita, hala badagokio, zerbitzua emateko kontratatu den erakundearen langileena ere.
2. Proiektuak aurkezteko inprimakia, «hirugarren munduko kooperaziorako proiektuak aurkezteko formulario ereduia - modelo de formulario de presentación de proyectos de cooperación con el tercer mundo» izeneko ereduarekin bat. Behar bezala bete eta sinatu beharko da, elektronikoki edo eskuz.
 - a. Inprimakia eskuz betez gero, letra larriz edo boligrafo urdin edo beltzarekin egin beharko da, letra argi eta irakurgarriarekin.
 - b. Eskatzaileak izapidea bitarteko elektronikokoetatik egingo balu eta inprimakia eskuz beteko balu, eskaneatu eta PDF formatuan igo beharko du egoitza elektronikora (ikus bitarteko elektronikoen bidezko izapidea, zortzigarren oinarrian).
3. Dirulaguntzaren bat jasotzekotan, edo jaso izanez gero, zinpeko adierazpen bat egin beharko da. Bertan adieraziko da dirulaguntza hori bateragarria dela dirulaguntza honekin.
4. Egingo diren proiektu, jarduera edo ekimenak oinarrituko diren ekintzen txostena. Bertan adierazitako proiektu, jarduera edo ekimen bakoitza noiz hasi eta amaituko den zehaztu beharko da.
5. Banku eta aurrezki erakunde batek egindako dokumentua, eskatzaileak irekitako kontu korrontearen titulartasuna egiaztatzeko.
 - a. Informazio hori soilik behin erantsiko da, nahiz eta deialdian proiektu bat baino gehiago aurkeztu. Salbuespena izango da erakunde onuradunak uneren batean kontu-korronteko zenbakia aldatzea. Kasu horretan, kontu-zenbaki berria eskaeraren inprimakian agertu beharko da, eta, halaber, aldaketa eskatu izanaren egiaztagiria ere erantsi beharko da.
6. Elkarrekin Eusko Jaurlaritzako elkarte edo erakundearen erregistroan edo Balmasedako elkartearen erregistroan inskribatuta egotearen egiaztagiria.
7. Estatutuen eta Erregistroan izena eman izanaren fotokopia egiaztatua.
8. IFZren fotokopia.
9. Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako zerga guztiak eguneratuta dituztela adierazten duten egiaztagiriak.
 - a. Jakinarazten da Balmasedako Udalak Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak behar bezala betetzen direla ofizioz egiaztatzeko eskubidea izango duela.
10. Aurkeztutako diru-sarreraren (bakoitzaren jatorria eta zenbatekoa) eta gastuen (kontzeptuak eta zenbatekoak) aurrekontu banakatua, BEZa barne.
11. Erakunde edo pertsona fisiko baten ordezkari gero, ordezkariaren pertsonaren ahalorde-ematea eta NANaren fotokopia aurkeztu behar dira, baita alde aurretik adierazitako agiriak ere.
12. Jakinarazten da Udalak, segurtasun juridikoa dela eta, oinarrietan adierazten ez diren beste agiri batzuk biltzea erabaki dezakeela.

Hamaikagarren oinarria. — Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.

**Hamabigarren oinarria. — Eskaerak zuzentzea**

Erakunde eskatzaileek 10 egun baliodun izango dituzte eskaera zuzentzeko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hamahirugarren oinarria. — Atzera egitea

Erakunde interesdun orok eskaeran atzera egin dezake bitarteko elektronikoen edo paperaren bidez.

Hala eta guztiz ere, atzera egiten duten erakundeek edo pertsona fisikoek eskaera berri bat egiteko eskubidea dute, baldin eta epea amaitu ez bada.

Hamalagarren oinarria. — Dirulaguntzaren mugak

Diruz lagundutako proiektu, jarduera edo ekimen bakoitzerako banako zenbatekoak eta eskatutako zenbatekoak ezingo dituzte hogeita mila euro (20.000 euro) gainditu.

Ezin izango du hogeita mila euro (20.000 euro) baino gehiagoko dirulaguntzarik jaso inongo proiektuk, jarduerak edo ekimenek.

Hamabosgarren oinarria. — Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikulua babesean, diruz lagun daitezkeen jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, baldin eta ezinbestez beharrezkoak badira eta oinarri honek ezartzen duen epean egiten badira.

Diruz lagunduko dira aurreko definizioan sartzen diren gastuak, betiere proiektua edo jarduera hasi zenetik amaitu arte eginak badira. Jardueren memoriak ezarriko dituzte hasierako eta amaierako data (ikus bederatzigarren oinarria, eskatutako dokumentazioari buruzkoa). Nolanahi ere, diruz lagundutako gastuak dirulaguntzaren urtearen eta ondo-ondoko urtearen artean egingo dira.

Diruz lagundutako gastuak bitan banatuko dira: batetik, kooperaziorako eta garapenerako proiektuetarako eta sentsibilizaziorako beharrezko gastuak eta, bestetik, gizarte-laguntza humanitariorako beharrezkoak.

Illo horri jarraikiz, hona hemen kooperaziorako eta garapenerako proiektuetarako eta sentsibilizaziorako diruz lagun daitezkeen gastuak:

1. Langileak, adituak edo bestelako giza baliabideak kontratatzea, proiektuak funtzionatzeko behar badira, soldadak eta gizarte-gastuak barne. Ez da inolaz ere kontzeptu hau eskatutako zenbatekoaren % 60tik gora diruz lagunduko.
2. Bidaia, ostatu eta mantenurako gastuak, pertsonen proiektuaren jardueraren baitan parte hartzeko joan behar badute.
3. Jarduerak egiteko behar diren materialak erostea.
4. Berriazko lanak egiteko kanpoko zerbitzuak kontratatzea, hizlari ordaindutakoak barne.
5. Erakusketak, kanpainak, hitzaldien zikloak, tailerrak eta jarduerak diseinatu eta ekoiztea, bai eta publizitate-elementuak inprimatu, kopiatu, biltegitatu eta banatzea ere.
6. Antolaketaren logistikak eragindako gastuak eta itzulpen-gastuak.
7. Administrazio- eta kudeaketa-gastuak, baldin eta erakunde eskatzaileak identifikatu, formulatu, jarraitu eta ebaluatzeko proiektuarekin zuzeneko lotura badute.

Gizarte-laguntza humanitarioen kasuan, hona hemen diruz lagun daitezkeen gastuak:

1. Oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak erosi eta garraiatzea, hondamendi bat dagoenean eraginpeko pertsonen biziraupena bermatzeko eta kalteak arintzeko:
 - a. Edateko ura.
 - b. Elikagaiak.
 - c. Jantziak, berokiak, burusiak, aterpeak, oinetakoak.



- d. Osasun-arreta: sendagaiak, txertoak eta higiene- eta osasungarritasun-neurriak.
2. Familietan eta erkidegoetan kalteberatasunaren eta desegituratze sozioekonomikoaren areagotze-prozesua gelditzea.
3. Balizko hondamendien aurreko konponketak eta epe laburrean kalteberatasuna murrizten laguntzen duten birgaitze-jarduerak.
4. Ezingo dira erbesteratutako langileen gastuak diruz lagundu.

Hamaseigarren oinarria. — Balorazio-irizpideak

Erakundeek eta elkarteek aurkeztzen dituzten proiektu, jarduera eta ekimen guztiak ondoren azaltzen diren irizpideen arabera neurtuko dira, eta gehienez 100 puntu lortu ahalko dira:

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.3.b artikulua arabera, balorazio irizpideen baremo guztiaren %5 dirulaguntza jaso nahi duen proiektuan genero-ikuspegia txertatzeari dagokio.
2. Lankidetzaren eta garapen-proiektuetarako hona hemen aintzat hartu behar diren irizpideak:
 - a. Kalitate teknikoa (gehienez, 30 puntu):
 - i. Egin behar den ekintzaren bideragarritasun teknikoa.
 - ii. Proiektuaren etorkizuneko iraunkortasuna.
 - b. Eraginpeko alderdien gaitasuna (gehienez, 15 puntu).
 - i. Tokiko kidearen esperientzia.
 - ii. Onuradunen partaidetza proiektuan.
 - c. Aurrekontua (gehienez, 5 puntu).
 - i. Planteatutako jardueren egokitasuna.
 - ii. Proiektuaren bideragarritasun finantzarioa.
 - d. Proiektuaren gizarte-helburuak (gehienez, 50 puntu).
 - i. Bereziki premia duten sektoreen bizi-baldintzak hobetzea.
 - ii. Genero-ikuspegia sartzea.
 - iii. Giza eskubideak sustatzea.
 - iv. Erkidegoaren kultura eta balio etikoak indartzea.
 - v. Ekintzak ingurumenari egokitzea.
3. Sentsibilizazio- eta/edo heziketa-proiektuetarako honako irizpide hauek jarraituko dira:
 - a. Garapen bidean dauden herrialdeen errealitatean sakontzea.
 - b. Proiektuaren berrikuntza.
 - c. Sentsibilizazio-ekintzetan erakunde eskatzailearen esperientzia.
 - d. Garapen bidean dauden herrialdeetako pertsonen partaidetza.
 - e. Herrialde horietako eta Balmasedako taldeen artean ezagutza eta trukea sustatzea.
 - f. Egitean eta gauzatzean zenbait erakundek batera parte hartzea.

Hamazazpigarren oinarria. — Balorazio-batzordea

Balorazio-batzordeak hamabosgarren oinarrian aipatzen den balorazio-irizpide bakoitza banaka ebaluatuko du.

Batzordearen kide izango dira Balmasedako Udaleko Gizarte Ekintza Arloko zinegotzi arduraduna eta Balmasedako Udaleko Zerbitzu Soziokulturaletako teknikaria.



Batzordeak beharrezkotzat jotzen badu, egokiak iruditzen zaizkion erakundeei edo elkarteei kontsultatuko die.

Hemezortzigarren oinarria. — Aurrekontua

Deialdian sartzen diren laguntzen zenbateko osoa deialdian bertan zehaztuko da.

Diruz lagun daitekeen edozein ildotan zuzkidura soberan geldituz gero, Balmasedako Udalak dirua egokitzat jotzen duenerako erabiliko du.

Hemeretzigarren oinarria. — Dirulaguntza ematea

Dirulaguntza hau eman eta jarraitzeko organo instrukzio-epailea Balmasedako Udaleko Gizarte Ekintza Zinegotzigoa da.

Ebazteko organo eskuduna Balmaseda udalerriko Alkatetza da, balorazio-batzordeak proposatu ostean.

Hogeigarren oinarria. — Justifikazio-irizpideak

Dirulaguntzaren justifikazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko, erakunde edo elkarte onuraduna Balmasedako Udaleko egoitza elektronikoa sar daiteke, honako webgune hau erabilia: www.egoitza.balmaseda.eus.

Halaber, dirulaguntzaren justifikazioa paperean aurkeztu ahal izango du Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren (HAZ) bitartez honako helbide honetan: El Cubo kalea 3, 48800, Balmaseda, Bizkaia.

Gehienez dirulaguntza eman eta hurrengo urteko abenduaren 1era arte emango da justifikazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko.

Justifikatzeko moduari dagokionez, Balmasedako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren IV. tituluko II. kapituluaren xedatutakoari erreparatuko zaio.

Ez bada justifikatzen, ezingo da Balmasedako Udaleko laguntza berririk jaso, eta, gainera, jaso, baina justifikatu gabe gelditu diren zenbatekoak gehi berandutze- interesa itzuli beharko dira.

Hogeita batgarren oinarria. — Ordaintzeko modua

Hamabosgarren oinarrian ageri diren balorazio-irizpideen arabera, balorazio-batzordeak proiektuak, jarduerak eta ekimenak baloratu ondoren, banku-transferentziaren bidez ordainduko zaio erakunde onuradunari.

Eskatutako zenbatekoaren %100 banku-transferentziaren bitartez aurreratua ordainduko da.

Hogeita bigarren oinarria. — Arau-haustek

Arau-haustetat joko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 56., 57. eta 58. artikuluetan aurrez ikusitakoak.

Hogeita hirugarren oinarria. — Zehapenak

Zehapenak jartzeko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluko II. kapituluaren xedatutakoari erreparatuko zaio.

Hogeita laugarren oinarria. — Itzultzeko prozesua

Itzultzeko prozesua Balmasedako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. eta 31. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo da.

Hogeita bosgarren oinarria. — Itzuleraren preskripzioa

Itzultzea onartzeko edo kitatzeko Balmasedako Udalaren eskubidea 4 urtera preskribatuko da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. artikulua ezartzen dituen zenbaketak kontuan hartuta.



Hogeita seigarren oinarria. — *Errekurtsoak*

Laguntza emateko ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du, eta hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aukeraren berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da.

Hogeita zazpigarren oinarria. — *Datuak babestea*

Balmasedako Udalak (IFZ: P4810400D; helbidea: San Severino plaza 1, 48800, Balmaseda, Bizkaia) datuak dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko tratatuko ditu, eta tratamenduren legitimazioa Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren legezko eskakizunak betetzean oinarritzen da.

Datuak hirugarren zerbitzu-emaleei jakinaraziko zaizkie ezinbestekoa denean bakarrik, eta ez zaizkie hirugarrenei lagako, lege-eskakizuna edo interes publikoa dagoenean izan ezik.

Balmasedako Udalak datu pertsonalak erantzukizunen bat eska dakioken legezko epe baino ez ditu gordeko.

Dirulaguntzen deialdi honetan eskatutako datuak nahitaezkoak dira lehen jakinarazi den helburua behar bezala betetzeko, beraz, ematen ez badira, Balmasedako Udalak prozeduran ezingo du partaidetza egokia bermatu.

Nolanahi ere, erakunde eta pertsona interesdunek atzitzearen, zuzentzearen, eza-batzearen, kontra egitearen eta mugatzearen eskubideak baliatu ahalko dituzte eskaera idatziz honako helbide elektroniko honetara bidaltzen badute: ayto@balmaseda.eus

Interesduna Balmasedako Udalean datuak babesteko ordezkariarekin (DBO) harremanetan jarri ahal izango da honako helbide elektroniko honetan: dpd@datalia.info

Era berean, jakinarazten da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkezteko eskubidea dagoela.